

Zurekin baitsean

Opari bat dakarkizu mundura

Pello OTXOTeko

Opari bat dakarkizu mundura,
begiak ireki
eta zure begirada errealtateari
aurrenekoz eskaintzen diozunean.
Biluztasun gordina da zurea
ontasunez betea
eta zure begiek
argitasun garbia dakarte
egunaren goizalba honetan.

Ez da eguna
bezain gau argirik
eta ez da zerua
bezain ate zabalik.
Ez da zure negarra
bezain arnasa bizirik,
honelaxe ttitkitzen dituzu
argirik distiratsuen
eta zabaldirik mugagabeena
zure loaren gerizpean.

Denboraren labarrek
ez dakusate amildegia
eta orrialde plegatuek
ezer idatzi ez dutenean
sentimenduen emozioetan
blaitzen gara

itota
ahoa irekitzen
barne sutearen kea
ezin kanporatuz.
Barrunbearen azalak
ezerezarekin topo egiten du
iraupenaren amildegian,
eta hor zaude zu
zalantza guztiak zarrastatzen
aharrausi soil baten diosalaz.

Egarririk ez duen ur-jarioa zara
ordu geldien mantupean,
zabala zure besarkada
ene behatza estutzen,
ozena zure lantua
nire gogoa isiltzen,
eta zure arnasaren erretenek
mundua berpizten dute.

Opari bat dakarkizu mundura,
begiak ireki
eta zure begirada errealitateari
aurrenekoz eskaintzen diozunean.
Biluztasun gordina da
ihartzen doan bitartean,
hasierako ontasunez husten doana
ustelduraren kiratsa emeki-emeki
beregana nagusitu heinean,
dohainik eskainitako oparia
bukaeran zapuztu arte.
Baina bizitza eskuzabala da,
eta opari batekin goaz
geure begirada errealitateari
azkenekoz lapurtzean,
denboraren isilune apalean
bihotzeko begiak
sekulan ez baitira ixten.

Zurekin baltsean

Baltsean aritzen nintzen zurekin
udako gau freskoetan,
eta ia ezertaz konturatzen ez zinen arren
maiteetan maiteena zinen niretzat.

Asko gozaten nuen zurekin
baltsean aritzean.

Begiak itxirik zu, irekiak ni,
keinurik egin gabe zu, irribartsu ni,
eta maiteetan maiteena zinen niretzat
ezer gutxi sumatzen zenuen arren.

Baltsean aritzen nintzen zurekin
udako gau freskoetan,
eta zure negarra asetzen nuen arte
besarkaturik igarotzen genituen minutuak
dantzan genbiltzan bitartean
alde batetik bestera.

Azkenean, baltsaren bukatze aldera,
erabat lokaturik ene besoetan zeuntzanean,
musu batez amaitzen nuen dantza
maiteetan maiteena zinela bermatuz.
Eta seaskan utzirik oheratzen nintzen,
gogoeten musikaz ene amets gozoetan
zurekin ere baltsean aritzeko.

Zure presentzia hutsa

Hantxe igarotzen nituen
minutuak eta minutuak
denbora amaiezina
konturatu gabe
ordu bat une luzea dela.

Zure presentzia hutsa
melodia guztien harmonia da
musikarik behar ez duen partituran.
Halakoetan nire izatea

arnasa baino ez da,
pentsamendurik ez
arrote bihurtua ni.
Etzanik zu
jauregien hiru dimentsioak
ttiki antzaldatzen dira
zure keinuen astinketan.
Denbora galtzeko tarterik ez
eta zurekin oro da olgeta.
Dena duzu berezi,
dena da bitxi.
Harat-honat dagizu mugimenduak
nora ezean alai,
eta hatzek airearekin dantzatu arren
zure eskuak ez dira
deus ere atxikitzeko gai.
Existitzen ez den txirrindan
kilometo ugari dituzu egiten
izerdi tantarik botatzeko
eta ez zazra inora iristen.
Tarteka negarraren ekaitzez
orroak eta oihuak
trumoi eta tximistak balliran
jaurtikitzen dituzu,
eta eskuek
zure burua oratzeko joera horretan
Munch-en "Garrasia" aireratzen dute
nire isiluneak zarrastatuz.
Halaxe naiz sotil eta xume
zure hotsen lilurapean horditurik,
eta bakardade sakon neurean
galderen erantzunak nimiño dira
hautsitako oroiminaren berreskurapenean.
Arkadiaren doinuak alferrik dira
halako bidaien hasieran.
Munduaren deserrian
umezurtz gara beti
oinazearen mende
helbururik ez duen izatean,
mendekua eta lehortea

maiz ageri diren lugorrian.
Baina zure irribarrearen arragoan
unibertsoaren klaustroa eraikitzen da
eta zure begiradaren sakonean
infinituaren argi guztiak
harrabots bihurtu
nirearekin bat egitean.



HAUR ETA GAZTE
LITERATURA